



Aurkibidea

1. Biztanleria

2. Lana

3. Diru-Sarrerak

4. Osasuna

5. Hezkuntza

6. Aisialdia eta gizarte-bizitza

7. Alhalduntzea



Biztanleria

1.- Biztanleriaren eboluzioa

- 1.1.- Biztanleak 2001-2018 bitartean
- 1.2.- Hazkundera
- 1.4.- Familiak

2.- Adinaren eta sexuaren arabera egitura

- 2.1.- 2018ko piramidea
- 2.2.- Etorkinak
- 2.3.- 15 eta 49 urte arteko biztanleak

3.- Mugimendu naturala

- 3.1.- Ezkontzak
- 3.2.- Jaiotzak
- 3.3.- Ezkontza-hausturak

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek hazkunde demografiko apala ageri dute azkeneko urteetan, eta migrazio-saldoak, berriz, positiboak dira.

EAEko populazioaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira, besteak beste: bizi-itxaropen handia, ugalkortasun apala eta migrazio moderatuak. Halaber, populazio gaztearen proportzioa apalagoa da biztanle nagusiagoen proportzioa baino.


1.- Biztanleriaren eboluzioa

1.1.- Biztanleak 2001-2018 bitartean

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira 2018an: bizi-itzaropen handia, ugalkortasun apala eta migrazio moderatuak, saldo orokor positiboarekin.

Emakumeen eta gizonen populazioa handitu egin da 2001 eta 2012 bitartean, eta, ondoren, murriztu egin da 2018ra arte. Gaur egun emakumeak gehiago dira 2012an baino, 1.122.505 hain justu, baina gizonen kopuruak ez du berreskuratzen izandako galera (1.057.944 dira 2018an), **biztanleen udal-estatistikan** jasotako kopuruen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren bilakaera, sexuaren eta denbora-tartearen arabera. 2001-2018.



Ituria: Eustat. Datu-bankua. Biztanleen udal-estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)


1.2.- Hazkundera

Hazkunde begetatiboak ez du zeinu positiboa 2001 eta 2017 bitartean, 2004 eta 2012 artean izandako hazkunde-tarte kasu batean izan ezik; ondoren, beheranzko joera nagusitzen da 2017raino, **heriotzen eta jaiotzen estatistikek** jasotzen duten moduan.

2001-2017 aldi ia osoan, migrazioaren saldoak konpentsatu du begetatiboa, 2012 eta 2013 biurtekoan izan ezik. **Migrazio-mugimenduen 2017ko estatistikak** jasotzen duenez, etorkinen % 51 gizonetzkoak izan ziren, eta % 49 emakumezkoak; aldiz, emigranteen kasuan handiagoa izan zen sexuen arteko aldea, % 54 gizonetzkoak eta % 46 emakumezkoak.

Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (%) 1988-2016.

34. grafikoa. Saldo begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (%). 1988-2016



Iturria: Eustat. 2018ko ikuspegi demografikoa.


[Erreferentziatzko dokumentua](#)

1.3.- Familiak

Familia-etxebizitzetan ohikoena den bizikidetza moduak seme-alabekin batera bizitzea biltzen du; hala bizi ziren 300.200 familia 2016an, Inkesta Demografikoaren datuek jasotzen dutenez. Haien atzetik, pertsona bakarreko familiak dira –bakarrik bizi direnak–; 245.000 inguru ziren 2016an, eta haien kopurua nabarmen handitu da 2001 eta 2016 bitartean (90.000 lagun baino gehiago). Era berean, etxean seme-alabarik gabeko bikoteen kopurua ere ugartu egin da aipatutako denbora-tartean; nahiz eta gaur egun egonkortzeko joera duen, 187.300 izan ziren 2016an.

Seme-alaba emantzipatuen batez besteko adina 1990an 26,8 urte izatetik 2016an 29,7 izatera igaro da, **Inkesta Demografikoak** jasotzen duenez.

Euskal Autonomia Erkidegoko familiak, motaren arabera, 2001, 2016.



Iturria: Eustat. 2001eko Biztanleria eta etxebizitza Erroldak, eta 2016ko Inkesta Demografikoa.

2. Adinaren eta sexuaren arabera egitura


2.1. 2018ko piramidea

2018ko urtarilaren 1ean, populazioaren egiturak sexu-ratio orekatua ageri du 20 eta 64 urte bitarteko adinetan; dena dela, 20 urtetik beherakoetan, ratioa 0,95era jaisten da, eta 64 urtetik gorakoetan, berriz, 1,36 da ratioa.

Emakume gazteen (20 urtetik beherakoen) proportzioa emakume guztien % 17 da, eta 65 urteko edo hortik gorako emakumeen proportzioa baino nabarmen apalagoa da, azken horiek % 25 baitziren esandako urtean. Gizonezkoen kasuan, % 19 ingurukoak dira proportzioak bi kasuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko populazio-piramidea, adinaren eta sexuaren arabera, 2018/1/1.

Piramide Interaktiboak




Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal-eroldaren estatistika. Biztanleria-proiekzioak
[Piramide Interaktiboak](#)

2.2. Etorkinak

Euskal Autonomia Erkidegoan 152.187 atzerritar bizi ziren 2018ko urtarrilaren 1ean; populazio osoaren % 7. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta atzerriko herritartasuna duten pertsonen % 35 Amerikako estaturen batekoak dira, eta Estatu osoan, berriz, % 24ra ez dira iristen. EAEn Amerikako herritartasunen bat duten pertsonen % 63 emakumeak dira, **biztanleen udal-erroldako** datuen arabera.

Jatorriz atzerritarrak diren etorkinen egitura, sexuaren eta adinaren arabera, 20.648 emakume eta 21.213 gizonetzko izan ziren 2017an. Oro har, gazteak, eta hamar emakumetik zazpi 15 eta 49 urte bitartean zituen; gizonetako kasuan, apur bat gehiago, **migrazio-mugimenduen estatistikaren** arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko migrazioak, jaiotza-urtearen, adinaren eta migrazio motaren arabera, 2017ko abenduaren 31n.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Migrazio-mugimenduen estatistika.

[Jatorrizko grafikoa](#)



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019

2.3.- 15 eta 49 urte arteko biztanleak

Populazio-piramideak erakusten duenez, adin emankorreetan dauden emakumeen adin-kohortek askoz ere emakume gutxiago dituzte 2018an 2001ean baino.

2018n, hamar emakumetik 4 eta hamar gizonetik 4,5 daude adin-tarte horretan. Pertsonak murrizteak ugalkortasunaren murrizketari eragiten dio, eta beste faktore batzuekin pilatzen da, hala nola emakumeen lehendabiziko amatasuna atzeratzearekin, emakumearen ugaltze-zikloa murriztearekin... Eta, era berean, bikoteak osatzeko probabilitate apalagoak sortzen dira, adin horietako beste aldi batzuekin konparatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak jaiotze-urtearen eta sexuaren arabera (15 eta 49 urte bitartean), 2001 eta 2018 urteak.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Biztanleen udal-estatistika

[Jatorrizko grafikoa 2001](#)

[Jatorrizko grafikoa 2018](#)

3.- Mugimendu naturala


3.1.- Ezkontzak

Lehendabiziko ezkontza gehienak gertatzen diren belaunaldiak murriztu egin dira populazioan, eta, horrez gain, izatezko bikoteak ugaritu egin dira elkarrekin bizitzeko aukera gisa; horren ondorioz, murriztu egin da ezkontzen kopurua. Euskal Autonomia Erkidegoko ezkontza-tasa 3,4 ezkontza dira mila biztanleko, eta Europako apalenetakoa zen 2017an.

Hala, 2016an 7.387 ezkontza izan ziren sexu desberdineko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean, eta 1976tik aurrera izandako kopururik apalena da (urte hartan, 16.093 ezkontza izan ziren). 2017an, tasa hori % 0,4 handitu zen, aurreko urtearekin alderatuta. Ezkontza zibilen kopurua % 23 zen 1990ean, eta 2017an, berriz, % 83,1.

Lehendabizikoz ezkontzeko adina handitu egin da, ezkongabe izatetik zenbatzen hasita, ez bikote-bizikidetzarik gabeko alditik hasita. Senargaien % 90,8k eta emaztegiak % 83,6k 30 urte baino gehiago zituzten 2017an. 2016an, ezkondu ziren gizonen ezkongabeen batez besteko adina 36,7 urte izan zen; emakumezko ezkongabeena, berriz, 34,8.

Euskal Autonomia Erkidegoko ezkongaien batez besteko adina, sexuaren eta egoera zibilararen arabera, 2007-2017 aldian.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Ezkontzen estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)


3.2.- Jaiotzak

2017an, 7,8 jaiotza izan ziren mila biztanleko; Espainiako datua baino apalagoa, 8,4 izan baitzen estatuan. Europar Batasunean, berriz, 9,9.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ugalkortasunak oso maila apalak ageri ditu inguruarekin alderatuta; 2016an, emakume bakoitzeko seme-alaben batezbestekoa 1,4 zen.

Amatasunerako batez besteko adina 32,9 urte dira. Jaiotzen % 56 ezkontutako bikoteen barruan izaten dira, azken urteetako kopururik apalenetako bat. Hazteko joera izan du guraso ezkongabeek izandako umeen ehunekoak. 2011n, jaiotzen % 34,3 izan ziren, eta 2016an, berriz, % 43,1. Joera horrek hazkunde positiboa izan du lehendabiziko, bigarren zein hirugarren seme-alaben kasuan.

Jaiotzen bilakaera, amaren egoera zibila kontuan hartuta.



Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika.

[Grafiko interaktiboa](#)

3.3.- Banantzeak

Ezkontzen haustura banantze- edo dibortzio-prozesuekin azaltzen da, eta ostera berriz ezkontzeko bidea irekitzen du. 2015ean, 3.536 ezkontza hautsi ziren; haietatik 3.378 dibortzio zuzenak izan ziren (aurrez legezko banaketarik gabek), eta 154, aldiz, banantzeak.

2015ean, emazteak aurkeztu zuen dibortzio-eskaera 1.006 kasutan; senarrak 602 kasutan eta senar-emazteek elkarrekin 2.272 kasutan.

Dibortzio heterosexualak Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatzailearen eta denbora-tartearen arabera. 2011-2015.



Iturria: Eustat. Ezkontza-hausteen estatistika.

[Grafiko interaktiboak](#)

Euskal Autonomia Erkidegoko adierazle demografikoak. 2015/2016

Euskal AEko 2015/2016 Adierazle Demografikoak

Hilkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Biziitxaropena jaiotzerakoan	80,3 urte	86,2 urte
Kanpo-kausarik gabeko bizi-itxaropena	81,2 urte	86,5 urte
Trafiko-istripurik gabeko bizi-itxaropena	80,5 urte	86,2 urte
Tumorerik gabeko bizi-itxaropena	84,8 urte	89,3 urte

Ugalkortasun adierazleak	Euskal AE	
	Emakumezkoak	
Emakumeko batez besteko haur-kopurua	1,4	
Lehenengo heinekoa	0,7	
Bigarren heinekoa	0,5	
Hirugarren eta ondorengoak	0,1	
Amatzeko batez besteko adina	32,9 urte	
Lehen jaiotza	31,9 urte	
Bigarren jaiotza	33,9 urte	
Hirugarren eta ondorengoak	34,2 urte	

Lehen ezkontzaren adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
100 pertsonako batez besteko lehen ezkontza kopurua	46,3	50,8
Lehen ezkontzako batez besteko adina	36,8 urte	34,6 urte

Emigrazio adierazleak	Euskal AE	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Emigrazioen batez besteko adina	3,5	3,3
Euskal AEtik kanpora	1,4	1,2
Lurraldean bertan	1,8	1,8
Beste lurralde batera	0,3	0,2
Udalerri barruko helbide aldaketak, batez beste	5,9	6,1
Emigratzeko batez besteko adina	33,6 urte	33,9 urte
Euskal AEtik kanpora	34,7 urte	34,9 urte
Lurraldean bertan	32,7 urte	33,3 urte
Beste lurralde batera	34,2 urte	33,6 urte
Helbidez aldatzeko batez besteko adina	32,7 urte	33,4 urte

Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak

Lana

1.- Ordaindutako lana

- 1.1.- Enplegua duten emakumeak
- 1.2.- Sektore ekonomikoak
- 1.3.- Soldata-arrakala

2.- Ordaindu gabeko lana

- 2.1.- Etxeko lana
- 2.2.- Etxeko pertsonen zaintza
- 2.3.- Zainketa-denbora

3.- Erantzunkidetasuna

- 3.1.- Ama okupatuak eta aita okupatuak
- 3.2.- Ordaindutako lana, ordaindu gabekoa eta zainketak bateragarri egiten
- 3.3.- Bizitza soziala eta aisialdi aktiboa bateragarri egiten

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren jarduera, ordaindutakoa eta ordaindu gabea, haien **barne-produktu gordinetan** eta **etxeko lanaren satelite-kontuan** islatzen da.

Balio erantsi garbia enplegua baino erritmo handixeagoan handitzen da (lanaldi osoko lanpostuak kontuan hartuta), 2008ko krisi ekonomikoaren ondotik. [BPGd eta PTDP](#)

Ordaindu gabeko lanaren balioak murriztu egiten du proportzioa barne-produktu gordinarekiko; alde batetik, ordainduta egiten diren etxeko lanak eta zainketak direla medio, eta, bestetik, gizarte-zerbitzu publiko eta pribatuen eta boluntarioen lanari esker.


Erantzunkidetasuna oraindik ere bidean da, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.

1.- Ordaindutako lana

1.1.- Enplegua duten emakumeak

Gero eta gehiago dira enplegua duten emakumeak. 2018an, okupatutako emakumeen urteko batezbestekoa 435.700 izan zen, eta gizonena, berriz, 482.600, **biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestan** bildutako datuen arabera.

16 eta 64 urte bitarteko populazioaren okupazio-tasa Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera.



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko estatistika.

[Grafiko interaktiboa](#)

Euskal Autonomia Erkidegoan, 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen okupazio-tasak goranzko joera ageri du hainbat hamarkadatik hona, nahiz eta tartean izan den geratzeko edo apur bat jaisteko joeraren bat. Gizonezkoen okupazio-tasak, berriz, beheranzko aldia izan du 2008 eta 2014 artean; haren ostean, berriro ere ia emakumeen okupazio-tasa bezainbeste hazi da.

Emakumerik gazteenek (16-24 urte) okupazio-tasa apur bat handiago dute adin-tarte bereko gizonezkoek baino 2018an (% 21,7 eta % 19,6, hurrenez hurren); gainerako okupazio-tasak, adin-talde handietan, handiagoak izan dira gizonetan, eta aldeak nabarmendu egiten dira adinarekin. Hala eta guztiz ere, emakumezkoen okupazio-tasa 73,9 puntutik gora ibiltzen da beti, eta 79,2 puntukoa da gizonezkoetan 2018an.


1.2.- Sektore ekonomikoak

«Manufaktura-industria» eta «Eraikuntza» sektoreek gizonezkoen proportzio handia dute, 2018ko **Jarduera Ekonomikoen Direktorioak** jasotzen duenaren arabera. Emakumeek hamar enplegutatik bi baino gutxiago betetzen dituzte «Metalurgia eta produktu metalikoak» sektorean, eta beste horrenbeste «Makinaria eta ekipamenduak» atalean ere, **Industria Estatistikak** biltzen dituen datuek diotenez.

«Txikizkako merkataritzan», hamar enplegutik ia zazpi emakumezkoek betetzen dituzte, eta «Handizkako merkataritzan», berriz, egoera kontrakoa da: hamar lanpostutik hiru emakumeek betetzen dituzte. «Ibilgailuen salmenta eta konponketa» kontuan hartuz gero, aldiz, emakumeek apenas betetzen dituzte hamar enplegutatik bi.

Emakumezkoen enplegua proportzionalki handiagoa da gizonezkoena baino «Osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetako jardueretan», baita «Hezkuntzakoetan» ere.

Enplegatutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan, jardueraren (A21) eta sexuaren arabera. 2018.



Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.
 Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE), erreferentzia-urteko urtarilaren 1ean.
[Jatorrizko grafikoa](#)

1.3.- Soldata-arrakala.


2016an, soldatapeko eta tankerako populazioaren batez besteko ordainsari garbia 1.292 € izan zen emakumeen kasuan, eta 1.647 € gizonen kasuan, betiere 2016ko **lan-baldintzei buruzko inkesta** jasotako datuen arabera.

30 urtetik beherako populazioan, bereziki emakumeetan, 2013ko kopuruak gutxieneko historikoa izan zuen, 1.000 euroen azpitik, eta badirudi 2016an leheneratzen ari zela, nahiz eta kopuruak 2000koen antzekoak izan. Ordainsaririk handienak 45 eta 64 urte bitarteko gizonen izaten dituzte, eta adin-tarte horretan % 20ko soldata-arrakala nabari da emakumeen eta gizonen artean.

Bestalde, 30 eta 44 urte bitarteko adin-taldeak zuen soldata-arrakala handiena 2016an, % 23koa, hain justu. Hala, 1.223 euro jasotzen zuten batez beste emakumeek, eta 1.594 euro gizonen artean.

2008aren ondoren gertatutako krisi ekonomikoak gehien astindutako emakume- eta gizon-taldeak zehaztasun handiagoz balioesteko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, hala nola soldaten osagai aldakorra, ordaindutako aparteko orduak egitea ala ez, lanaren beraren edukiak, jardunaldiaren ordu kopurua murriztea edo handitzea kategoria profesional desberdinetan.

Soldatapeko eta antzeko populazioak azkeneko hilabeteen kobratutako ordainsariaren batezbestekoa (euroak prezio konstantetan, 2016), sexuaren eta adinaren arabera. EAE. 1996-2016.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta
[Erreferentziako dokumentuak](#)
[Erreferentziako taula](#)


2.- Ordaindu gabeko lana

2.1.- Etxeko lana

Etxeko lanaren satellite-kontuak erakusten duenez, emakumeek gehiago esku hartzen dute gizonezkoek baino ordaindu gabeko lanetan. Hori gertatzen da bizitzaren mantentze-lanetako jardueretan.

Azkeneko 20 urteetan 2013ra arte izan den bilakaerak erakusten duenez, nahiz eta gizonezkoen parte-hartzea ia 13 puntu handitu den etxeko lanetan, emakumezkoen lanak oraindik ere bikoiztu egiten du guztizkoarekin alderatuta.

Ordaindu gabeko eta merkatutik kanpoko etxeko lanaren balioespena, sexuaren eta funtzioen arabera. Mila eurotan. 2013.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Etxeko lanari buruzko satellite-kontua.

[Jatorrizko grafikoa](#)


[Erreferentziako taula](#)

2.2.- Etxeko pertsonen zaintza

Etxeko pertsonen zaintza-lanak emakumezkoen kargu izan dira neurri handiagoan, gizonezkoen ardurapean baino, eta hala jarraitzen duten izaten, dela adingabeak zaintzeari begira, dela adineko pertsonak zaintzeari begira. Hala diote 2013ko denbora-aurrekontuen inkestak jasotako datuek.

Emakumeek adingabeak zaintzen ematen duten batez besteko denbora, parte-hartzaile bakoitzeko, 1:29 ordu da, eta gizonezkoen kasuan, berriz, 1:10, 2013ko datuen arabera. Emakumeek helduak zaintzen ematen duten batez besteko denbora, parte-hartzaile bakoitzeko, 01:41 ordu da, eta gizonezkoen kasuan, berriz, 01:25. Adingabeak zaintzeko partaidetza-tasa ez zen handitu adierazitako denbora-tartean, baina bai pertsona helduak zaintzeari dagokiona.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko herritarren partaidetza-tasa, etxeko pertsonak zaintzen (%). 2013.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Denbora-aurrekontuen estatistika.
[Jatorrizko grafikoa](#)


[Irudia](#)

2.3.- Zainketa-denbora

2013an, adingabeak zaintzen eman duten herritarren partaidetza-tasa handiagoa da adinekoak zaintzen emandakoa baino; halere, pertsona helduak zaintzeko partaide bakoitzak eman duen denbora poliki-poliki hazten joan da 1993 eta 2013 bitartean. Emakumeek, batez beste, denbora gehiago ematen dute gizonen baino pertsonak zaintzen, edozer okupazio dutela ere, 2013ko datuek erakusten dutenez.

Erretiratutako gizonetako denbora gehiago ematen dute batez beste emakume erretiratuek baino, dela adingabeak zaintzen, dela adinekoak zaintzen. Okupatutako emakumeek, ostera, denbora gehiago ematen dute okupatutako gizonen baino. Emakume langabeen kasuan, adinekoak zaintzen gehiago ematen dute adingabeak zaintzen baino. Aldiz, ez da halakorik gertatzen gizonetako kasuan, ezpada kontrakoa.

Parte-hartzaile bakoitzak etxeko pertsonak zaintzen batez beste emandako denbora, zaintzailearen jardueraren eta sexuaren arabera (hh:mm). 2013



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta.

[Erreferentziako taula.](#)

3.- Erantzunkidetasuna


3.1.- Ama okupatuak eta aita okupatuak

Okupatutako populazioaren % 13k uste du amatasunak/aitatasunak kalte handia eragingo liokeela bere ibilbide profesionalari; hala dio **lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko 2017ko inkestak**. Dena dela, ama diren emakumezkoen okupazio-tasak handitzen jarraitzen du.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan okupatutako hamar pertsonatik hiruk dio zailtasun handiak dituela mendeko pertsonak zaintzea eta lana bateragarri egiteko (% 33,5), baita seme-alaba adingabeen zaintza uztartzeko ere (% 28).

Lan-jardunaldiaren luzapenak apur bat gehiago eragiten die gizonezkoei emakumezkoei baino; gizonezkoen % 17,4k eta emakumeen % 17,9k batzuetan luzatzen du lan-jardunaldia, eta, ia beti luzatzen den kasuetan, gizonezkoak kasuen % 23,8an izaten dira inplikaturik, eta emakumeak, berriz, % 19,3an, 2017ko datuen arabera.

Hamasei urteko eta gehiagoko populazioaren okupazio-tasa Euskal Autonomia Erkidegoan, beren kargu dituzten seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera (%). 2014-2018.



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.
[Erreferentziako taula](#)

3.2.- Ordaindutako lana, ordaindu gabekoa eta zainketak bateragarri egiten


2013ko datuen arabera, egun arrunt bateko 10:00 eta 13:00 bitartean, emakumeen % 30ek baino gehiagok eta gizonen % 15ek baino gehixeagok etxeko lanetan jarduten dute.

Iluntzeko zortzietan, handitu egiten da etxeko lanetako partaidetza, eta nabarmentzen da emakumeen % 24 aritzen direla lan horietan, baita gizonen % 12 ere. Emakumeen etxeko lanetako ordutegia lehenago hasten da eta beranduago amaitzen, gizonezkoen kasuan baino. Lanaren eta prestakuntzaren alorrean, oster, kontrakoa gertatzen da.

Okupatutako emakumeen % 18,8 ez daude batere konforme ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiten duen esku-hartzearekin, **lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko 2017ko inkestak** biltzen dituen datuen arabera.

Okupatutako emakumeek gogobetetze handiagoa ageri dute seme-alabak zaintzen – % 57,9k adierazten du handia dutela–, baita mendekoak zaintzen ere –% 45,9k–, okupatutako gizonezkoekin alderatuta (% 49,9 eta % 40,7, hurrenez hurren).

Partaidetza-tasak, eguneko jarduera-taldearen arabera (lana eta prestakuntza, etxeko lanak eta etxeko pertsonak zaintzeko lanak), ordu-tarteen eta sexuaren arabera. %. 2013.



Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta.

[Erreferentziako dokumentuak](#)


3.3.- Bizitza soziala eta aisialdi aktiboa bateragarri egiten

Bizitza sozialeko partaidetza-tasak ez dira gehiegi aldatzen emakumeen eta gizonen artean, batez beste; aldiz, aldaketa handiagoak dira aisialdi aktiboaren eta kirolaren alorrean, **denbora-aurrekontuen 2013ko inkestak** jasotako datuen arabera.

Arratsaldeko seiak eta zazpiak aldera izaten da joera handiena (gizonen eta emakumeen % 20 baino gehiago). Gizonezkoek, emakumeek baino gehiago parte hartzeaz gain (tasa handiagoak dira), ordu-tarte luzeagoz ere jarduten dute. Hala, 21:00etatik aurrera, emakumezkoen aisialdi aktiboa % 4,5era murrizten da, eta gizonezkoen kasuan, berriz, ordu eta erdi geroago iristen da ehuneko horretara.

Emakumeak apurtxo bat kontentagaitzago ageri dira aisialdirako denborarekin, **ongizate pertsonalari buruzko inkestak** jasotzen duenez.

Partaidetza-tasak, eguneko jarduera-taldearen arabera (aisialdi aktiboa eta kirolak, bizitza soziala), ordu-tarteen eta sexuaren arabera. %. 2013.



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta.

[Erreferentziako dokumentuak](#)

Diru-Sarrerak

1.- Errenta pertsonala

- 1.1.- Batez besteko errenta pertsonala
- 1.2.- Errenta pertsonal erabilgarria
- 1.3.- Errenta pertsonalaren estratuak
- 1.4.- Okupazioa eta jarduera-adarra

2.- Familia-errenta

- 2.1.- Familia-errentaren estratuak
- 2.2.- Ikasketak eta familia-errenta

3.- Pobrezia

- 3.1.- Egiazko ongizaterik eza
- 3.2.- Pobrezia, aberastasuna eta adina

1. Errenta pertsonala

1.1. Batez besteko errenta pertsonala

Emakumeen batez besteko errenta pertsona 15.578 euro da urteko, eta gizonezkoena, berriz, 25.696 euro, 2016ko datuen arabera.

Errenta erabilgarria, berriz, gastuak eta atxikipeak kendu ostean, urteko 13.315 euro dira emakumeen kasuan, eta 21.288 euro gizonezkoen kasuan.

Batez besteko errenta pertsonalari dagokionez, 10.118 euroko aldea dago gizonezkoen eta emakumeen artean; errenta erabilgarriari dagokionez, berriz, 7.973 eurokoa da aldea, betiere 2016ko datuek diotenez.

18 urteko eta gehiagoko herritarren batez besteko errenta pertsonala Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera.



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

[Grafiko interaktiboa](#)


1.2. Errenta pertsonal erabilgarria

2016an, 18 urteko edo hortik gorako gizonezkoen % 10ek eta emakumeen % 15ek ez zuten errentarik, **pertsonen eta familien errentaren estatistikak** jasotzen duenaren arabera.

Errenta pertsonal erabilgarriaren banaketak –adinaren eta sexuaren arabera egindakoak– erakusten duenez, tarte nabarmena ageri da adin-talde guztietan, gizonezkoen alde; tarte hori gazteetan ere ageri da, nahiz eta txikiagoa izan.

Adinean aurrera egin ahala, areagotu egiten dira aldeak, bereziki erretiratzeko adinera gerturatu ahala; une horretan, emakumezkoen errenta pertsonal erabilgarria gizonezkoenaren erdia baino gutxiago da. Egoera hori 79 urtera bitarte nabarmentzen da; adin horretan hasten dira emakumeen eta gizonen arteko kopuruak gerturatzen, nahiz eta inoiz ez diren erabat berdintzen.

18 urteko eta gehiagoko herritarren errenta pertsonal erabilgarria (eurotan), Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta bosturteko adinaren arabera. 2016.-



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.
[Jatorrizko grafikoa](#)


1.3. Errenta pertsonalaren estratuak

Batez besteko errenta pertsonalaren banaketa grafikoan simetria gutxiko piramidea ageri da: emakumeen balioak kategoriarik apalenetan daude kontzentratuta, eta gizonenak, berriz, kategoria ertain eta altuetan, 2016ko zifrek erakusten dutenez.

Urtean 15.000 eta 18.000 euro bitarteko errenta-estratua inflexio-puntu bat da, eta, handik aurrera, gizonenak proportzio handiagoa ageri da, salbuespenik gabe; estratu haren azpitik, berriz, emakumeen proportzioa handiagoa da estratu apaletan gizonenak baino, salbuespenik gabe han ere.

Errentarik gabeko pertsonen proportzioa ia ehuneko bost puntu handiagoa da emakumeetan, eta pertsonarik aberatsenen proportzioa hiru aldiz handiagoa da gizonenak baino emakumezkoetan.

EAEko 18 urteko eta gehiagoko biztanleak (%), sexuaren eta errenta-estratuaren arabera (eurotan). 2016.



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)


1.4.- Okupazioa eta jardura-adarra

2016an, 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen okupazio-tasa % 62,2 izan zen, eta gizonezkoena, berriz, % 68,9. Hala, gerturatzeko joera dute. Okupatutako emakumeen batez besteko errenta pertsonala 23.497 euro izan zen 2016an, eta gizonezko okupatuena, berriz, 33.140 euro. Gizonezkoek, hortaz, ia heren bateko aldea zuten, euren alde.

Jardura-sektore bakarrean ere ez da handiagoa emakumeen batez besteko errenta pertsonala, gizonezkoenarekin alderatuta. **Eraikuntzaren sektorea** da salbuespena; izan ere, 2009tik aurrera, jatorriaren arabera, lanaren batez besteko errentaren eta kapitalaren errenta (batez ere higiezinaren kapitalarena) nabarmen handiagoak dira emakumeetan, eta jardueren errenta, berriz, handiagoa da gizonen artean, betiere sektore horretan.

Finantza-jardueretan, higieinekin lotutakoetan eta enpresei eskainitako zerbitzuetan, emakumeen batez besteko errenta 32.080 euro da, eta gizonen batez besteko errenta, berriz, 49.814 euro. Heren bateko baino gehiagoko aldea, hortaz.

Okupatutako populazioaren batez besteko errenta pertsonala, sexuaren eta jardura-adarraren arabera (eurotan). 2016



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.

[Jatorrizko grafikoa](#)

2.- Familia-errenta


2.1.- Familia-errentaren estratuak

2016an, 18 urteko eta gehiagoko emakumeak buru dituzten familien % 3,06k ez zeukan errentarik aitortuta (ez pertsona bakarreko errentarik, ez baterakorik), ezta 18 urteko eta gehiagoko gizonak buru dituztenen % 1,95ek ere.

Errenta jasotzen duten familietan, jasotzaile nagusia gizonezko bat denean, familiaren batez besteko diru-sarrerak 46.709 euro izan ziren, eta familia horiek errenta-estratu ertain eta altuetan kokatu ziren. Jasotzaile nagusia emakumea denean, berriz, kopuru hori 36.819 euroan geratu zen, eta familiok errenta-estratu apaletan kontzentratu ziren. Hartzaile nagusi gisa emakume bat duten familien % 9ren errenta-estratua urtean 9.001 eta 12.000 euro bitartekoa izan zen.

Urtean 15.000 eta 18.000 euro bitarteko errenta-estratua inflexio-puntu bat da: emakume hartzaile nagusien % 33k eta gizonezko homologoen % 17k 18.000 euroko batez besteko familia-errenta edo apalagoa zuten.

Euskal Autonomia Erkidegoko familiak (%), hartzaile nagusiaren sexuaren eta errenta-estratuaren arabera (eurotan). 2016.-




Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)

2.2.- Ikasketak eta familia-errenta

Hartzaile nagusiaren ikasketa-mailak laguntzen du batez besteko familia-errenta handiagoa izaten; halere, horrek bereiz funtzionatzen du gizonezkoen munduaren eta emakumezkoenaren artean, baina ez batera hartuta: batez besteko familia-errenta, doktoregoa edo gradu-ondokoa duen emakume bat denean hartzaile nagusia, ez da beti handiagoa izaten titulazio apalagoko gizonezko hartzaileak buru dituzten batez besteko familia-errenta baino.

Euskal Autonomia Erkidegoko familia-errenta erabilgarria (eurotan), hartzaile nagusiaren sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2016.



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)

3.- Pobrezia


3.1.- Egiazko ongizaterik eza

Egiazko pobrezia-egoeran eta egiazko ongizaterik ezean dauden emakumeen proportzioa handiagoa da gizonezkoena baino, 2016ko **pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkestak** jasotako datuen arabera.

Egiazko hamar pobrezia-egoeratik sei Europar Batasunetik kanpoko atzerriarren etxeetan gertatzen dira, baita titularra okupazio egonkorrik gabe dagoen familia-taldeetan ere; halaber, okupazio egonkorrik ez duten emakumeek gidatutako guraso bakarreko familietan ere gertatzen da hori, eta, 2008ko datuekin alderatuta, kopurua 15 puntu baino gehiago igo da azken kasu horretan.

Badira hainbat pertsona, okupazioa eta diru-sarrerak izanagatik ere, egiazko ongizaterik ez dutenak eta beharrianak dituztenak, okupazioaren prekarietateak eraginda. Pobrezia-egoeraren azpian, enpleguaren prekarietatea ageri da.

Egiazko pobrezia- eta prekarietate-egoerak Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera (%). 2008-2016



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta.

[Jatorrizko taula](#)

[Erreferentziako dokumentuak](#)


Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019

3.2.- Pobrezia, aberastasuna eta adina


Batez besteko errenta handiena duten pertsonen proportziorik handiena 50 eta 64 urte bitarteko herritarretan pilatzen da, 2016ko datuek diotenez. Eta gehienak gizonezkoak dira. Errenta apalena duten pertsonen proportzio handiena, berriz, 30 urtez azpikoetan eta 80 urtetik gorakoetan pilatzen da.

Batez besteko errenta pertsonalaren analisi xeheagoak erakusten duenez, gizonezkoek jasotzen duten errenta handiagoa da emakumeek jasotzen dutena baino, errenta motaren arabera kontuan hartuta eta 2016ko datuen arabera.

18 urteko eta gehiagoko herritarren batez besteko errenta pertsonala (eurotan), Euskal Autonomia Erkidegoan, errentaren jatorriaren, adinaren eta sexuaren arabera. 2016



Jatorrizko grafikoa



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Pertsonen eta familien errentaren estatistika.

Jatorrizko grafikoa

Osasuna

1. Osasun-egoera

- 1.1. Bizi-itxaropena
- 1.2. Osasunari buruzko pertzepzioa
- 1.3. Ohitura osasungarriak I
- 1.3. Ohitura osasungarriak II

2. Gaixotasuna

- 2.1. Osasun-arazoak
- 2.2. Gaixotasun kronikoa
- 2.3. Mugak eta ezgaitasuna
- 2.4. Emandako laguntza

3. Osasun-zerbitzuak

- 3.1. Ospitaleratzeak
- 3.2. Amatasuna
- 3.3. Kanpoko arreta

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoa, osasun-egoerari eta osasun-zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, oso gertu dago genero-berdintasun birtualetik, 2015eko Genero Berdintasuneko Indizean jasotako datuen arabera.

1. Osasun-egoera

1.1. Bizi-itxaropena

Euskadiko emakumeen bizi-itxaropena 86,2 urtekoa zen 2016an, eta Europa osoko handienen artean dago; gizonezkoei dagokienez, berriz, 80,3 urtekoa da haien bizi-itxaropena.

2017an, hildako lau emakumetarik hiruk 80 urte edo gehiago zituen (% 77), baina hildako gizonezkoen % 55ek bakarrik zituen 80 urte edo gehiago (erdiek baino gehixeagok). Kopuru horietan, ehun urte egindako 57 emakume eta 13 gizon biltzen dira, **Heriotzen Estatistikak** jasotako datuen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko heriotzak, sexuaren eta adinaren arabera 2017.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Heriotzen estatistika.

[Jatorrizko grafikoa](#)

[Bizi-itxaropena lantzeko erreferentziako dokumentua](#)

Tumoreak dira gaur egun bizi-itxaropenaren mehatxu nagusia; halakorik ez balego, gizonezkoen bizi-itxaropena 4,5 urte luzeagoa litzateke, eta emakumeena, berriz, 3,1 urte luzeagoa. Hiltzeko kanpo-arrazoi izenez ezagutzen direnek 9 hilabetez laburtzen diete bizi-itxaropena gizonezkoei, eta hiru hilabetez emakumezkoiei; zirkulazio-istripuek bakarrik, bi hilabete mozten dute gizonezkoen bizi-itxaropena, ez ordea emakumeena, **Osasun Inkestak** dioenez.


2013 eta 2018 artean, apur bat igo da **desgaitasunarekin** bizi izan diren urteen kopurua emakumeen kasuan (0,4 urte); alabaina, gizonezkoen kasuan, bizi-itxaropena handitu egin da, **desgaitasunik gabe** bizitako urteei (0,8) esker, **Osasun Inkestako** datuek diotenez.

1.2. Osasunari buruzko pertzepzioa

2018ko **Osasun Inkestaren** arabera, osasun ona edo oso ona nabarmentzen dute emakumeen % 82k eta gizonen % 87k, Europako batezbestekoaren gainetik.

Osasun onaren pertzepzioa adinaren eta bestelako determinatzaile sozioekonomiko batzuen eraginpean dago: zenbat eta aurrerago egin adinean, orduan eta osasun-arazo gehiago agertzen dira. Eta, halaber, maila sozioekonomikoan behera egin ahala, osasun-pertzepzioa ere murriztu egiten da. Hala eta guztiz ere, pertzepzio positiboak nabarmen egin du hobera 2002 eta 2018 bitartean, talde sozioekonomiko desberdinen artean.

Osasun onaren prebalentzia estandarizatua Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta talde sozioekonomikoaren arabera (%). 2002-2018



* Adinaren arabera estandarizatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako populazioa, 2011.

- I. 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, eta tradizionalki unibertsitate-lizentziaturak izan dituzten profesionalak.
- II. 10 soldatapeko baino gutxiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, tradizionalki unibertsitate-diplomaturak izan dituzten profesionalak, eta laguntza teknikoko bestelako profesionalak. Kirolariak eta artistak.
- III. Bitarteko lanbideak eta norbere konturako langileak.
- IV. Lanbide tekniko kalifikatuen eta erdi-kalifikatuen gainbegiraleak eta langileak.
- V. Kalifikatu gabeko langileak.


Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.
[Erreferentziako webgunea](#)

1.3. Ohitura osasungarriak I

Tabakismoa, arrisku handiko alkohol-kontsumoa, sedentarismoa edota fruta eta barazki gutxi kontsumitzea ez dira lagungarriak osasunerako.

2018ko Osasun Inkestako datuek diotenez, tabakismoa etengabe murrizten joan da azkeneko urteetan. Emakumeen % 14k eta gizonezkoen % 20k modu ohikoan erretzen dute, eta alde handia dago ingurune sozialaren arabera. Emakumeen artean ez da alde handirik erregistratzen, baina, gizonezkoen kasuan, egoera sozioekonomiko onenean dauden gizonezkoetatik % 12 erretzaileak dira, eta maila sozioekonomiko apala dutenetatik, berriz, % 30ek erretzen du.

Tabako-kontsumoaren prebalentzia estandarizaturik Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta talde sozioekonomikoaren arabera (%). 2018



* Adinaren arabera estandarizaturik. Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako populazioa, 2011.

I. 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, eta tradizionalki unibertsitate-lizentziaturak izan dituzten profesionalak.

II. 10 soldatapeko baino gutxiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, tradizionalki unibertsitate-diplomaturak izan dituzten profesionalak, eta laguntza teknikoko bestelako profesionalak. Kirolariak eta artistak.

III. Bitarteko lanbideak eta norbere konturako langileak.

IV. Lanbide tekniko kalifikatuak eta erdi-kalifikatuen gainbegiraleak eta langileak.

V. Kalifikatu gabeko langileak.

Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.

[Erreferentziako webgunea](#)

1.3. Ohitura osasungarriak II


Murritzatu egin da edale ohiko gisa hartutako pertsonen proportzioa (hau da, gutxienez astean behin edaten dutenak), 2018ko **Osasun Inkestako** datuetan jasotakoaren arabera. Emakumeen % 35ek eta gizonezkoen % 56k alkohola edaten dute gutxienez astean behin, 2013an baino ehuneko bi eta zazpi puntu gutxiago, hurrenez hurren.

Arrisku handiko alkohol-kontsumoa % 21,4koa da 45 eta 64 urte bitarteko gizonetan, eta, erretiratzeko adinaren ostean, prebalentzia handitu egiten da gizonezkoetan eta murritzatu emakumeetan.

Sedentarisinoa ehuneko 8 puntuan murritzatu da emakumeetan eta 6 puntuan gizonezkoen artean, 2013 eta 2018 bitartean; emakumeen % 27k eta gizonezkoen % 20k ez dute ariketa fisikorik egiten.

Egunero kontsumitutako fruta eta barazki kopurua ugaritu egin da, 2018ko datuen arabera. Emakumeen % 77k eta gizonezkoen % 68k jaten dute fruta egunero; berduraren kasuan, ehunekoa % 38ra eta % 27ra murritzten da, hurrenez hurren.

Epe luzerako arrisku handiko alkoholaren kontsumo-prebalentzia Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta adinaren arabera (%). 2018.



Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.
[Erreferentziako webgunea](#)


2. Gaixotasuna

2.1. Osasun-arazoak

Bizi-kalitatean eragiten duten arazorik ohikoenak mina eta/edo ondoeza izaten dira: emakumeen % 33ri eta gizonen % 24ri eragiten diote. Ondoren, honako arazo hauek ageri dira: antsietatea edo depresioa, mugikortasun-arazoak edota eguneroko jarduerak egiteko zailtasunak, betiere **Osasun Inkestak** jasotzen duenez.

Emakumeen % 17k eta gizonen % 9k depresio- edo antsietate-arazoak dituzte, 2018ko datuen arabera; prebalentzia hori % 32 murriztu da emakumeetan, eta % 40 gizonen artean, 2013ko datuekin konparatuta. Egoera okerragoetan bizi diren pertsonen ia hiru aldiz aukera gehiago dituzte sintoma horiek izateko.

Antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia estandarizatua Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta talde sozioekonomikoaren arabera (%). 2018



* Adinaren arabera estandarizatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako populazioa, 2011.

I. 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, eta tradizionalki unibertsitate-lizentziaturak izan dituzten profesionalak.

II. 10 soldatapeko baino gutxiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak, tradizionalki unibertsitate-diplomaturak izan dituzten profesionalak, eta laguntza teknikoko bestelako profesionalak. Kirolariak eta artistak.

III. Bitarteko lanbideak eta norbere konturako langileak.

IV. Lanbide tekniko kalifikatuen eta erdi-kalifikatuen gainbegiraleak eta langileak.

V. Kalifikatu gabeko langileak.

Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.


[Erreferentziako webgunea](#)

2.2. Gaixotasun kronikoa

Gaixotasun kronikoek emakumeen % 46ri eta gizonezkoen % 42ri eragiten diote, 2018ko datuen arabera. Hipertentsioa da lehendabiziko arazoa: emakumeen % 15,7ri eta gizonen % 15,9ri eragiten die. Nolanahi ere, badirudi nolabait ere egonkortzen ari direla arrisku-faktore kardiobaskularrak.

Datuetan agerienez, ohikoagoak izaten dira emakumeetan hezurretako eta artikulazioetako gaixotasun kronikoak (artrosia, osteoporosia, bizkarraldeko eta zerbikaletako minak) eta tiroide-arazoak. Kolesterol-maila altuak eta diabetesa emakumeetan zein gizonezkoetan ageri dira, nahiz eta gizonezkoetan proportzioa handixeagoa den.

Osasun-arazo kronikoen prebalentzia Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera (%). 2018




Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.

2.3. Mugak eta ezgaitasuna

Ohiko bizitzako jardueraren muga kronikoak emakumeen % 10,8ri eragiten dio, eta gizonezkoen % 8,6ri.

Mugapenaren kausa edo jatorria maiz gaixotasun bat izaten da, zehazki mugak dituzten emakumeen % 82,5en eta gizonen % 78,1en kasuan, betiere 2018ko datuek diotenaren arabera. Eredu horretan, hipertentsioa da eragin handiena duten gaixotasunetako bat. Bestetik, lanetik eratorritako gaixotasunek emakumeen % 8 mugatu dituzte, eta gizonezkoen % 8,5.

Biztanleriaren banaketa, norbere jardueraren mugaketa kronikoa ekarri dion osasun-arazoaren eta sexuaren arabera (%). 2018.




Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.

2.4. Emandako laguntza

Eguneroko bizitzan laguntza behar duten eta mugapenak dituzten pertsonen maiz familia-ingurunean topatzen dute laguntza.

Laguntza behar duten emakumeen % 57,3ri eta gizonen % 73,2ri elkarrekin bizi den senitartekoren batek eskaintzen dio laguntza hori; horrez gain, emakumeen % 39,4k eta gizonen % 25,9k batera bizi ez den familiako norbaiten laguntza jaso zuen. Beste kasu batzuetan, emakumeen % 27,7ri eta gizonen % 24,6ri apropos kontratatutako pertsona batek laguntzen dio.

Laguntza behar duten pertsonen proportzioa (%), laguntza ematen duen pertsonaren** eta sexuaren arabera, 2018.



**Oharra. Kategoriak ez dira baztertzailerak.
 Iturria: Osasun Saila. Osasun Inkesta.

3. Osasun-zerbitzuak


3.1. Ospitaleratzeak

2018an, gizonen eta emakumeen % 7 ospitaleratu egin zituzten aurreko 12 hilabeteen barruan, **Osasun Inkestak** jasotzen duenaren arabera.

Ospitaleratzeak arrazoietatik albo batera uzten baditugu erditzea, haurdunaldia eta erdiberriaroa (berez ez baitira osasun-arazoak), berriro ere ikusiko dugu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna (ia ehuneko hamar puntu gehiago): 2017an, % 54,7 eta % 45,3, hurrenez hurren (betiere **Ospitale-morbilitatearen estatistikaren** arabera).

Era berean, gizonen batez besteko ospitaleratze-adina goiztiarragoa izan zen emakumeena baino, eta alderik handiena traumatismoek eta lesioek eragindakoetan nabaritu zen (54 urte gizonetan, eta 67 urte emakumeetan).

Ospitaleratze-tasak (akutuen ospitaleak), bosturteko adinaren eta sexuaren arabera (0/100). 2017




Iturria: Eustat. Ospitaleko morbiditate-estatistika.

3.2. Amatasuna

2017an, 18.207 erditze izan ziren, **Ospitale-morbilitatearen estatistikan** bildutako datuen arabera. Haietatik, % 14 zesarea bidez izan ziren; ehuneko hori murriztu egin zen, bai sare publikoan (% 3), bai pribatuan (% 16). Halere, azken horretan, zesarea-tasa askoz ere handiagoa izan zen ehun erditzetik sare publikoan baino.

2018an, nesken % 84k eta mutilen % 80k amaren edo esne-banku bateko edoskitze naturala izan dute, **Osasun Inkestaren** arabera.

Edoskitzearen prebalentzia (%) egoeraren arabera, amaren jarduerari dagokionez. 2018




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila. Osasunari buruzko inkesta

3.3. Kanpoko arreta

2018an, emakumeen % 14k eta gizonen % 10ek kontsultatu dute lehen mailako arretako medikua azkeneko 14 egunetan; oro har, murrizketa txiki bat nabari da lehen mailako arretako eta arreta espezializatutako kontsulten eskaeran, **Osasun Inkestako** datuetan jasotzen denez. Aldiz, premiazko arreta-eskaerak ugartu egin dira: emakumeen % 18k eta gizonezkoen % 16k larrialdietako arreta jaso dute inkesta egin aurreko sei hilabeteetan.

Kirurgia anbulatorioak, ospitaleratzerik eskatzen ez duenak, 75.179 pertsona artatu zituen 2017an, **Ospitale-morbilitatearen estatistikak** jasotako datuen arabera; diagnostiko nagusia begietako gaixotasunak dira (16.320 emakume eta 12.393 gizon), kataratak, batez ere. Bigarren tokian, aparatu muskuloeskeletikoaren gaixotasunak artatu ziren (% 10,8), eta, haien barruan, belauneko nahasmenduak izan ziren ohikoenak gizonetan, eta juanikotearekin lotutakoak emakumeetan.

Kirurgia anbulatorioko pazienteak Euskal Autonomia Erkidegoko akutuen ospitaleetan, diagnostiko-talde handien eta sexuaren arabera. 2017.



Iturria: Eustat. Ospitaleko morbiditate-estatistika.
[Jatorrizko taula](#)

Hezkuntza

1. Herritarren hezkuntza-maila

- 1.1 Titulazioa eta jarduera ekonomikoa
- 1.2. Hezkuntza-bilakaera
- 1.3. Etengabeko hezkuntza

2. Ikasle-populazioa

- 2.1. Eskolatze-tasa garbiak
- 2.2. Graduatze-tasa gordinak

3. Goi-mailako hezkuntza eta segregazioa

- 3.1. Goi-mailako hezkuntza duen populazioa
- 3.2. Unibertsitate-segregazioa

4. Hezkuntza eta ikerketa

- 4.1. Aktibo intelektualak
- 4.2. I+Gko emakume ikertzaileak
- 4.3. Exekuzio-sektorea
- 4.4. Bioteknologia

Sarrera

Mende honetako euskal gazteen hezkuntza maila bigarren hezkuntzan edo goi-mailako hezkuntzan sendotu da.

Neska-mutilen ikasketa-hautuek genero-estereotipoen arabera jarraitzen dute, nahiz eta ageri den badela ere ikasketak ikuspegi handiagoz aukeratzen dituen ikaslerik.

Emakumezkoak bide egiten ari dira ikerketaren esparruan, nahiz eta desberdintasunak ageri diren emakumeen eta gizonen artean, puntako sektoreetan.

1. Herritarren hezkuntza-maila


1.1. Titulazioa eta jarduera ekonomikoa

Sendoturik ageri da Euskadiko herritarren hezkuntza-maila mende honetan: okupatutako populazioaren erdiak baino gehiagok bigarren mailako hezkuntza edo hortik gorakoa dauka egiaztatuta. Hain zuzen ere, okupatutako emakumeen % 63k eta okupatutako gizonen % 53k, 2016ko datuek jasotzen dutenez.

Goi-mailako ikasketekin okupatutako emakumeen proportzioa ehuneko hamar puntu handiagoa da gizonezkoena baino, **Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak** jasotako datuen arabera.

Orotara, 640.126 pertsona dira hamasei urtetik gorakoak eta lehen mailako ikasketak dituztenak; lehen mailako ikasketak dituzten gizonen kopurua handiagoa da emakumezkoena baino, adin bosturteko guztietan, hasi 16 urtetik eta 55 urtera iritsi arte (2016ko datuak). Adin horretatik aurrera, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeak 84.134 gehiago dira, 55 urtetik gorako populazio-taldeetan.

Hamasei urteko eta hortik gorako biztanleak Euskal Autonomia Erkidegoan, titulazio-mailaren arabera, jarduera eta sexua kontuan hartuta. 2016/11/01. %



Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikak.
[Jatorrizko taula](#)


1.2. Hezkuntza-bilakaera

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ezaugarria izan emakumeek baino askoz gizon gehiagok **eskola goiz uztea**. Horretarako, gehienez ere bigarren hezkuntzako lehen etapa osatu duten 18 eta 24 urte bitarteko herritarren ehunekoa hartzen da, ondoren inolako ikasketarik eta prestakuntzarik jarraitu ez dutenak, alegia. Mende honetan, tasak poliki-poliki jaisten joan dira, eta 2017an emakumezkoen eskola-uzte goiztiarraren tasa % 5,5 izan da Euskadin; gizonzkoena, berriz, % 5,6.

2017an gutxienez **bigarren mailako ikasketak** gainditu dituen populazio-tasa (20 eta 24 urte bitartekoak) % 80,1 izan da emakumeen kasuan, eta % 86 gizonzkoetan.

Hirugarren mailako ikasketak dituzten populazioaren tasa (30 eta 34 urte bitartean) kontuan hartuta, emakumeak izan dira nagusi eta hala jarraitzen dute, dela Euskal Autonomia Erkidegoan, dela Europan. Emakumeen tasa ehuneko 23 puntu handitu da Euskadin, eta, 2017an, 30 eta 34 urte bitarteko emakumeen % 57k **gaindituta zeuzkan hirugarren mailako ikasketak**.

Eskola-uzte goiztiarraren tasa (*) 18-24 urteko populazioan, eta hirugarren mailako ikasketak dituzten 30 eta 34 urte arteko herritarren tasa. %. 2002-2017.



(*) Gehienez ere bigarren hezkuntzako lehen etapa osatu duten herritarren ehunekoa, ondoren inolako ikasketarik eta prestakuntzarik jarraitu ez dutenak.

Iturria: Eustat. Egiturazko adierazleak. Europa 2020.

[Erreferentziatzko taula 1](#)


[Erreferentziatzko taula 2](#)

1.3. Etengabeko hezkuntza

Helduen etengabeko hezkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ezaugarria da emakumeen presentzia handiagoa dela, **Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak** emandako datuen arabera –2010 eta 2012 bitartean izan ezik –.

2017an, emakumezkoen % 9,7k eta gizonezkoen % 8,4k (25 eta 64 urte bitartekoek) parte hartu zuten helduen etengabeko hezkuntzan.

Etengabeko hezkuntzan diharduen populazioaren ehunekoa (25 eta 64 urte). 2001-2017



Oharra: Etengabeko hezkuntza (*lifelong learning*) terminoak prestakuntza-prozesuarekin jarraitzen duen helduei egiten dio erreferentzia (maiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatuz), irakaskuntza ez-arautuaren esparruan.

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.
[Erreferentziatzeko taula](#)

2. Ikasle-populazioa

2.1. Eskolatze-tasa garbiak


2017/2018 ikasturteko Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen ezaugarria eskolatze goiztiarra da: 2 urteko populazioaren % 94 eta urtebeteko populazioaren % 50 eskolatuta baitzegoen. Oro har, **Haur-hezkuntzako** matrikulazioa handitu egin da mende honetan. Goia jo zuen 2012an, eta apur bat jaitsi da gaur egunera arte: 43.046 neska eta 45.977 mutil matrikulatuta, 2017/2018 ikasturtean.

Lehen hezkuntza ia populazio osoan dago ezarrita, eta matrikulen kopuruak ez dio hazteari utzi mende honetan orain artean: 63.357 neska eta 67.268 mutil zeuden matrikulatuta 2017/2018 ikasturtean.

Emakumeen eta gizonen arteko segregazioak jarraitzen du ikasketa profesionalei dagokienez, **Irakaskuntzaren estatistikak** jasotzen dituen datuek diotenez. Hori hala, 16 eta 17 urte arteko nesken % 76 **Batxilergoan** daude matrikulatuta; ehuneko hori 16 puntu apalagoa da mutilen kasuan (% 60,9), haiek gehiago ageri baitira **Lanbide-heziketan** –neskak baino ehuneko hamar puntu gehiagorekin–.

Ikasle atzeritarren % 27 **Oinarrizko lanbide-heziketan** matrikulatu zen 2017/2018 ikasturtean; ikasketa horiek nagusiki hitzartutako zentroetan (matrikulen % 72) eta A ereduan egiten dituzte. Era berean, atzerriko ikasleen % 12 **Erdi mailako heziketa-zikloetan** matrikulatu zen (esandako matrikulazio horien % 60 zentro publikoetakoak dira).

Eskolatze-tasa garbiak (*) Euskal Autonomia Erkidegoan, adinaren, mailaren eta sexuaren arabera. 2016/2017



(*) Biztanleria: Tasak kalkulatzeko, EUSTATEk egindako populazio eguneratua baliatu da, azkeneko ikasturtean izan ezik; kasu horretan, Eustatek egindako populazio-proiekzioa baliatu da (Populazioaren errolda oinarria 2001)

Iturria: Eustat. Datu-bankua. Eskola-jarduerari buruzko estatistika.

[Erreferentziatzeko taula.](#)


2.2. Graduatze-tasa gordina

Ikasleek lehen aipaturako emakume eta gizonen arteko segregazioa ageri dute, ikasketa teknikoari erreparatzen baldin badiegu (eskola teknikoak eta goi-eskola teknikoak); hala erakusten dute **Eskola-jardueraren estatistikako** datuek.

Graduatze-tasa gordina handiagoa dute emakumeek, derrigorrezko bigarren hezkuntzan, batxilergoan, unibertsitate-graduetan eta master ofizialetan; gizezkoek, berriz, tasa handiagoak ageri dituzte lanbide-heziketa teknikoan –erdi- eta goi-mailakoak–, ‘lizentziaturetan, arkitekturan eta ingeniartzan’, betiere 2015/2016 ikasturteko datuen arabera.

Ikasketa teknikoekin lotutako gizezkoen **errenta pertsonal eskurakoa** da altuenetakoa: 29.751 eurokoa izan zen 2016an. Hezkuntza-maila horretan bertan, emakumeen errenta pertsonal eskurakoa 18.216 euro izan zen. Hala eta guztiz ere, errenta pertsonal eskurakoan, emakumeen eta gizonen arteko alde handienak lehen hezkuntzaren mailan agertzen dira: 2016an, emakumezkoen errenta gizezkoenaren erdia zen.

Graduatze-tasa gordina Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2015/2016.



Graduatze-tasa gordina maila jakin batean graduatzen diren ikasleen kopurua izango da –edozer dela ere adina–, adin teorikoko populazioarekin alderatuta –esandako maila horren azken ikasturtea hastean–.

Maila teknikoak: Lanbide-heziketako erdi mailako heziketa-zikloak, arte plastikoetakoak, diseinukoak eta kirol-hezkuntzako erdi-mailakoak, eta LH I.

Goi-maila teknikoak: Lanbide-heziketako goi-mailako zikloak, arte plastikoetakoak, diseinukoak, LH II eta arte plastikoak eta ogibide artistikoak. Arte-irakaskuntzako goi-mailako ikasketak haien baliokideak diren unibertsitate-titulazioekin batera jaso dira.

Iturria: Eustat. Datu-bankua. Eskola- eta unibertsitate-jarduerari buruzko estatistika

[Erreferentziazko taula](#)

3. Goi-mailako hezkuntza eta segregazioa


3.1. Goi-mailako hezkuntza duen populazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko populazioaren hezkuntzako zifrek aurrerapen handia ageri dute azkeneko 30 urteetan, 1986 eta 2016 artean, bereziki emakumezkoen kasuan. Baita segregazioa ere, **Populazio eta Etxebizitza errolden eta estatistikaren arabera**.

Goi-mailako hezkuntza duten emakumeen kopuruaren igoera bereziki nabari da fakultateetan eta unibertsitate-eskoletan. Fakultateetako eta unibertsitate-eskoletako goi-mailako hezkuntza duten emakumeen kopurua nabarmen handiagoa izan da emakumeetan, eta hala izaten jarraitzen du: 118.392 emakume eta 82.714 gizon fakultateetan, eta 81.625 emakume eta 27.485 gizon unibertsitate-eskoletako prestakuntzan, 2016an.

Goi-mailako hezkuntza teknikoa duten gizonezkoen kopurua handiagoa da emakumeena baino: 29.781 gizon eta 10.524 emakume goi-mailako hezkuntza-zentro teknikoetan, eta 28.166 gizon eta 7.704 emakume zentro teknikoetan, 2016an. Kopuru horiek areagotzeko joera nabarmenagoa dute goi-mailako ikasketa-zentro teknikoen kasuan, 2001etik aurrera.

Hamar urteko eta hortik gorako biztanleak Euskal Autonomia Erkidegoan, goi-mailako hezkuntza desagregatuaren eta sexuaren arabera. 1986-2016.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Biztanleen eta etxebizitzaren errolda.

[Jatorrizko grafikoa](#)

[Beste ikuspegia](#)

3.2. Unibertsitate-segregazioa


2016/2017 ikasturtean, 5.122 emakumek eta 3.775 gizonek amaitu zituzten graduiko ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetan, **Unibertsitate-estatistikan** jasotako datuen arabera. Dena den, aldeak nabari dira emakumeen eta gizonen prestakuntza-hautuetan.

Osasun Zientziak titulazioaren taldean, gradu-tituluen % 77 emakumeek eskuratuak dira; Ingeniaritza eta Arkitekturan, berriz, gradu-tituluen % 28 izan ziren emakumezkoen esku, denbora-tarte horretan.

Ingeniaritza Mekanikoko titulazioan, 81 emakumek eta 293 gizonek amaitu zituzten ikasketak; Industria Ingeniaritza Elektronikokoan eta Automatikoan, berriz, 19 emakumek eta 114 gizonek. Era berean, 85 emakumek eta 88 gizonek amaitu zituzten Arkitekturako graduiko ikasketak (Arkitekturako Oinarriak edo Arkitektura Teknikoa), esandako ikasturte horretan.

Gizarte Zientzien kasuan, Lehen Hezkuntzan 521 emakume eta 318 gizon graduatu ziren (% 60 eta % 40, ez dirudi desoreka); Haur Hezkuntzan, ordea, 428 emakume eta 38 gizon (% 92 eta % 8, ez dirudi zoriz izandako zifra), betiere adierazitako denbora-tartean.

EAEko unibertsitateetan graduiko ikasketak amaitutako ikasleak, titulazioaren eta sexuaren arabera sailkatuta. 2016/2017



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Unibertsitate-estatistika
[Jatorrizko grafikoa](#)

4. Hezkuntza eta ikerketa

4.1. Aktibo intelektualak


Euskal Autonomia Erkidegoak goi-mailako instrukzioa duen enplegatuen proportzio handia du; hala diote **Berrikuntzako Adierazleen Panelean** erabilitako irizpideek, giza baliabideen esparruan, 2018ko datuen arabera.

Goi-mailako instrukzioa duten enplegatuen zati handi bat emakumeak dira; baieztapen hori lehendik ere berretsita dago adierazitako Europako adierazlean: **Hirugarren mailako hezkuntza duen 30-34 urte bitarteko populazioaren ehunekoa Euskal Autonomia Erkidegoan**. Kopurua % 58,9 da emakumeen kasuan, eta % 37,3 gizonen kasuan, 2017ko datuak aintzat hartuta. Era berean **25-34 urte bitarteko ikasleek gaingidutako tesiak** kontuan hartzen baditugu, 224 emakumek gaingidu zituzten, eta 212 gizonezkoek (2016/2017 ikasturtea).

Goi-mailako teknologiaren sektorean, oinarri teknologiko sendoko oinarria duten jarduerak ageri dira, jakintza bizkor berritzea eskatzen dutenak. Orotara, 87.727 lanpostu sortu zituen 2016an.

Sektore horrek I+Ga garatzen duten enpresen % 47,1 biltzen du, eta enpresa-sektorearen barneko I+Garen gastu osoaren % 73,7 hartzen. Goi-mailako teknologiaren sektorean enplegatutako pertsonen genero-arrakala ageri dute: hamar enplegutatik hiru bakarrik betetzen dituzte emakumeek, eta hamarretik zapi, aldiz, gizonezkoek.

Goi-mailako teknologiaren sektoreko I+Ga dedikatutako DOB langileak Euskal Autonomia Erkidegoan, okupazioaren (ikerketa) eta sexuaren arabera. 2016



DOB: Dedikazio Osoko Baliokidetza

Iturria: Eustat. Goi-mailako teknologiaren adierazleen panela.

[Erreferentziarako taula](#)


4.2. I+Gko emakume ikertzaileak

Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistikak, I+G, informazio garrantzitsua eskaintzen du emakumeek jarduera zientifikoetan, teknologikoetan eta ikerketarekin lotutakoetan duten egitekoari buruz.

I+Garen sektorean ari ziren langileak 11.109 emakume eta 18.958 gizon ziren 2017an. Gehienak Ingeniaritzan eta Teknologian biltzen dira (% 63); diziplina zientifiko horrek 4.961 emakume eta 13.845 gizon ditu. Gainerako eremu zientifikoetan (zientzia medikoak, zientzia zehatzak eta naturalak, gizarte eta giza zientziak, nekazaritza-zientziak), emakumeen eta gizonen arteko orotarako aldeak ez dira horren nabarmenak, eta kasuren batean (zientzia medikoak, farmazia barne) emakumeak 2.730 eta gizonak 1.835 dira.

I+Garen alorrean okupatutako emakume guztiak ez dira ikertzaileak, nahiz eta 10tik 7 hala diren; proportzio bertsua ageri dute gizonen ere (DOB zifrak). Ikertzaileen proportziorik handiena goi-mailako irakaskuntzan ageri da (emakumeak % 83 eta gizonen % 90); halere, administrazio publikoaren sektorean, emakume ikertzaileak % 41 dira, eta gizonen ikertzaileak berriz, % 65.

EDB ikertzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko I+Gko sektorean, exekuzio-sektorearen, sexuaren eta aldiaren arabera. 2002-2016.



DOB: Dedikazio Osoko Baliokidetza

Iturria: Eustat. Datu-bankua. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika, I+G.

[Jatorrizko grafikoa](#)

4.3. Exekuzio-sektorea


Emakumeen eta gizonen arteko desorekak ez dira, ordea, eremu edo diziplina zientifikoan bakarrik ageri; exekuzioaren sektoreak –I+Gko jarduera exekutatzen den esparruak edo inguruneak– ere ageri ditu aldeak, dela emakumeen eta gizonen enpleguan, dela emakume ikerlariek eskura duten gastuan.

Enpresen sektoreak (hemen irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak ere biltzen dira) exekutatzen du barne-gastuaren % 55. Gastu horren % 77 ingeniartzaren eta teknologiaren esparruan baliatu zen.

Garatzen duen langile-taldea 5.354 emakumek eta 13.877 gizonak osatzen dute orotara, eta Ingeniaritzaren eta Teknologiaren diziplina zientifikoak sektore honetan emakumeen % 72 eta gizonezkoen % 90 biltzen du, 2017ko datuek jasotzen dutenez.

Sektore honetan, hamar emakumetik sei ikertzaileak dira: gizonezkoen proportzio berean.

I+Gra dedikatutako langileak Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko enpresa pribatuen sektorean, diziplina zientifikoaren eta sexuaren arabera 2017an.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika, I+G.


[Jatorrizko grafikoa](#)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019

Goi-mailako irakaskuntzak ere exekutatzen du barne-gastua I+Gn, nahiz eta guztizkoaren % 3 bakarrik izan, eta 3.785 emakumek eta 3.712 gizonek dihardute. Aurrekontuaren erdia ingeniartzaren eta teknologiaren esparruan baliatu zen, non DOB langile-taldea 34 emakumek eta 117 gizonez baitago osatuta. Halaber, gizarte-zientzien esparruan ere baliatu zen, sektore horretako aurrekontuaren % 28ekin: DOB langile taldea 305 emakumek eta 584 gizonez dago osatuta, 2017ko datuen arabera. Zientzia zehatzek aurrekontuaren % 14 bideratzen dute, eta 228 emakume eta 349 gizon dituzte DOB taldean.

Goi-mailako irakaskuntzaren sektorean emakume langile guztien % 93 dira; gizonezkoen kasuan, berriz, % 91 dira ikertzaileak, DOB zifretan betiere.

I+Gra dedikatutako langileak Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako irakaskuntza-zentroetan, diziplina zientifikoaren eta sexuaren arabera 2017an.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika, I+G.


[Jatorrizko grafikoa](#)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2019

Administrazio publikoak exekutatzen du I+Gko gastuaren % 34: 1.970 emakumek eta 1.369 gizonak garatu zuten 2017an. Berririo ere, ingeniariaren eta teknologiaren eremuak hartzen du gastuaren erdia, sektoreko langileen zati batek bakarrik bada ere: izan ere, 1.725 emakume eta 981 gizonak jarduten dute zientzia medikoen esparruan.

Administrazio publikoen sektorean emakumeen proportzioa emakumezko langileen % 41 da; gizonen kasuan, berriz, % 65 dira ikertzaileak, DOB zifretan betiere.

I+Gra dedikatutako langileak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoan, diziplina zientifikoaren eta sexuaren arabera 2017an.



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika, I+G.

[Jatorrizko grafikoa](#)


4.4. Bioteknologia

Euskal Autonomia Erkidegoko bioteknologiaren esparruko ikertzaileen ezaugarria da emakumezkoen presentzia handiagoa izatea, **bioteknologiako I+Gari buruzko estatistikan** jasotzen denez. 800 emakume eta 545 gizon dira EDP zifretan –hau da, erabateko dedikazioan–, 2017an. Emakumeen % 73 ikertzaileak dira, eta gizonezkoen % 82 (DOB zifretan); hau da, nahiz eta emakume gehiago egon, ikertzaile direnen proportzioa txikiagoa da gizonen kasuan baino.

Eskuratutako produktuen aplikazio-eremuak giza osasunarekin (% 74,0) eta elikadurarekin (% 8,9) daude lotuta.

Emakume askok ikasketan osasunarekin lotutako diziplina zientifikoa aukeratzen dute: bai lanbide-heziketako hezkuntza-maila apaletan, bai erdi- eta goi-mailakoetan, bai unibertsitate-maila handiagoetan.

Bioteknologiako I+Ga. Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten pertsona guztiak, okupazioaren eta sexuaren arabera. 2007-2017



Iturria: Eustat. I+G Bioteknologikoari buruzko estatistika
[Erreferentziatzeko taula](#)

Aisialdia eta gizarte-bizitza

1.- Aisian eta gizarte-bizitzan emandako denbora

- 1.1. Aisialdia
- 1.2. Batez besteko denbora soziala
- 1.3. Asteko egunak

2.- Aisiaren eta gizarte-bizitzaren jarduerak

- 2.1. Aisialdi osoaren ordutegia
- 2.2. Aisialdi pasiboa
- 2.3. Aisialdi aktiboa eta Internet

3.- Gizarte-bizitza eta kapital soziala

- 3.1. Gizarte-bizitzaren jarduerak
- 3.2. Emakumeen kapital soziala

Sarrera

Aisialdia denbora librearen eta kapital kulturalaren arteko konbinazio bat da. Aisialdi motibatua da, gozatze-jardueretara eskainia –dela aktiboak, dela sedentarioak–, eta estu lotuta egoten dira gizon-emakumeen gustu eta gaitasunekin, jakinik haien motibazioak aldatu egiten direla bizitzan zehar.

Gizarte-bizitza etxetik kanpoko pertsonekin diren harremanen multzoa da; ez dira hemen sartzen lana eta prestakuntza, etxeko pertsonen zaintzak eta etxeko lanak, eta gizon-emakumeen **kapital sozialarekin** lotura estua duten jardueretan inbertitutako denbora.

Aisialdi motibatutik, hainbat alderdi azter litezke, hala nola **kopurua** (geratzen den denbora librea kanpoko eta etxeko lanetik aparte, loa, elikatzea eta prestakuntza ere albo batera utzita), **kalitatea** (modu askean aukeratutako jarduerak, zainketa-lanak aisialdi gisa kontatzea saihestuz), eta **edukia** (emakumeen irudia handituko duen kapital kulturala baliatuz). Gainera, aisialdiaren **lekuak** eta **konpainiak** aldeak erakusten ditu emakumeen eta gizonen artean.


1. Aisian eta gizarte-bizitzan emandako denbora

1.1. Aisialdia

Pertsona batek bere zaletasunetan eta abarretan eman dezakeen denbora librea, egun arrunt batean, ordaindutako lanetik eta etxeko lanetik aparte, prestakuntza eta etxeko pertsonen zaintza albo batera utzita; denbora librea hondar-denbora da eta alderantzizko aldaketa ageri du gizon-emakumeek lanari oro har eskaintzen dioten denborarekiko.

Ordaindutako lanak eta prestakuntzak zuzenean baldintzatzen dute denbora librea gizonen kasuan, baina, emakumeen kasuan, etxeko lanek eta zainketek aldarazten dute hondar-denbora hori, ordaindutako lanaz eta prestakuntzaz gainera; mendekotasuna duten pertsonak zaintzea eta lan- eta familia-bizitza uztartzeko desorekek (baita bizitza pertsonala uztartzeko ere) gehiagotan murrizten dute emakumeen eguneroko denbora librea, gizonenak baino gehiago.

Desberdintasunak (+) emakumeen eta gizonen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko 16 urtetik gorako herritarren batez besteko denbora sozialean, eguneroko jarduera-talde handiei dagokienez eta lan jarduerarekin duten harremanaren arabera (oo:mm). 2018



Eustat. Denbora-aurrekontuen gaineko inkesta

[Erreferentziako taula](#)

Tartea: (+) zeinu positiboko alde, emakumeen edo gizonen alde.


Oharra: Laginak maiztasun apala erakusten du etxeko lanetara eta zainketetara dedikatutako gizonen kategorian; hori dela eta, esangura eskasagoa du talde horrenak.

1.2. Batez besteko denbora soziala

Gizarte modernoek balioesten dute aisialdiak eta interakzio sozialek gizon-emakumeen ongizatean duten egitekoa.

Erretiratutako gizonetakoak eskaintzen dute batez beste denbora sozial gehiena aisialdira eta gizarte-bizitzara: 7:24, **2018ko denbora-aurrekontuen gaineko inkestaren** arabera, egunean zazpi orduetik gora, alegia. Enplegua duten emakumeek 3:22 minutu dituzte egunean batez beste denbora sozialean, eta enplegua duten gizonak, berriz, 3:58 minutu, hots, 36 minutu gehiago batez beste, esandako tartean.

Hamasei urte eta gehiagoko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren batez besteko denbora soziala, eguneroko jarduera-talde handiei dagokienez, lan-jarduera eta sexua kontuan hartuta (oo:mm). 2018



Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta

[Erreferentziako taula](#)

Oharra: Laginak maiztasun apala erakusten du etxeko lanetara eta zainketetara dedikatutako gizonen kategorian; hori dela eta, esangura eskasagoa du talde horrenak.


1.3. Asteko egunak

Asteburuetan kontzentratzen da gizon-emakumeen aisialdirako eta gizarte-bizitzarako denbora gehien. **Aisialdi pasibora** bideratutako denbora, alegia, «sedentariotzat» hartzen dena, hala nola telebista ikustea, irakurtzea, zaletasunak lantzea, ikuskizunetara joatea, jokoak (ez onlinekoak) eta abar, handiagoa da asteburuetan, eta beti gehiago izaten da gizonezkoetan emakumezkoetan baino – ordu erdi inguru gehiago parte-hartzaileko –. Gizonen aldeko desberdintasun hori egonkorra da denboraren erabileraren estatistiken historian.

Aisialdi aktiboak pertsona bera protagonista den jardueretan emandako denbora erakusten du; esaterako, paseoak, mendi-irteerak, kirola praktikatzeko eta, oro har, etxetik kanpo egiten diren jarduerak. Talde honen barruan sartzen da ordenagailu eta Internet bidezko aisialdia, maiz etxe barruan eginagatik ere. Emakumeen eta gizonezkoen artean, batez beste 20 minutuko aldea zenbatu da, eta are handiagoa aisialdi aktiboaren kasuan, beti gizonezkoen alde, asteko egun guztietan.

Gizarte-bizitzaren jarduerarik ohikoenak hauek dira: bazkaltzera, afaltzera edo kopak hartzera irtetea, eta etxetik kanpora jendearekin solasean aritzea. Gizarte-bizitzaren barruan sartzen dira, era berean, praktika erlijiosoak, boluntariotza-lanak eta beste etxe batzuetan egindako laguntza eskuzabala.

Aisian eta gizarte-bizitzan parte-hartzaileko batez besteko denbora, asteko egunaren eta sexuaren arabera (oo:mm) 2018.



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta

[Erreferentziako taula](#)

2. Aisiaren eta gizarte-bizitzaren jarduerak


2.1. Aisialdi osoaren ordutegia

Guztira aisialdirako denbora gutxien duten herritarren taldea, aisialdi pasiboa barnean hartuta, 35 eta 59 urte bitarteko herritarrek dira, eta horiek ageri dute, halaber, emakumeen eta gizonen arteko tarte txikiena. Beheko grafikoan, bi adin kategoriatako (35 eta 59 urte, eta 60 urtetik gora) gizon-emakumeek aisialdiko jardueretan egunean zehar duten partaidetza-tasa erakusten da, goizeko 6:30etik gaueko 11:59ra arte, betiere **2018ko denbora-aurrekontuen inkestaren arabera**.

Gizon-emakumeen aisialdiko partaidetza-tasa apalenak honako une hauetan gertatzen dira: jaten edo lotan daudenean, lanean edo ikasten ari direnean, etxeko lanak egitean, etxeko pertsonak zaintzean edo joan-etorrietan.

Aisialdi-jardueretan partaidetza-tasa handiena duten orduen banaketa antzekoa da emakumeen eta gizonen artean, eta gehieneko aldi bat izaten da 22:00etan, populazioaren erdia aisialdi pasiboko jardueretan, eta beste piko bat 17:00etatik 20:00etara gertatzen da. Aisialdiko jardueretako partaidetza-tasa nabarmen txikiagoa da 60 urtetik gorako emakumeetan, adin horretako gizonek egunean zehar izaten dutenaren aldean, harik eta 21:00ak igaro arte; ordu horretan, gainjarri egiten dira ordu-lerroak –partaidetza-tasak–.

Populazioak aisia osoko jardueretan duen partaidetza-tasa, ordu-tartearen, adinaren (35-59 urte, 60 eta gehiago) eta sexuaren arabera (%) 2018



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta


2.2. Aisialdi pasiboa: komunikabideak eta zaletasunak

Sedentariotzat hartzen diren aisialdiko jarduerarik ohikoenak (% 90eko partaidetza-tasekin baino handiagoekin), komunikazioarekin lotuta daude: telebista ikustea; liburuak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzea; musika edo irratia entzutea... Hor barruan sartzen dira, halaber, zaletasunak (margotzea, zizelkatzea, musika interpretatzea eta abar), baita erakusketetara, kontzertuetara edo zinemara joatea edo jokoak ere (baina ez onlinekoak).

Aldeak nabari dira gizon-emakumeen artean komunikabideak kontsumitzeari dagokionez, baita irakurketarekin loturik eta etxetik kanpo egiten diren kultura- eta jolas-jarduerak hautatzen ere –hala nola jokoak eta zaletasunak–.

Emakumeek batez besteko partaidetza-denbora 2:54 ordu da 2018an, eta gizonen kasuan, berriz, 3:05.

Aisialdi pasiboko jardueretan parte-hartzaileko batez besteko denbora, lan-jarduerarekin duen harremanaren eta sexuaren arabera (oo:mm). 2018



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta
[Erreferentziako taula](#)

Oharra: Laginak maiztasun apala erakusten du etxeko lanetara eta zainketetara dedikatutako gizonen kategorian; hori dela eta, esangura eskasagoa du talde horrenak


2.3. Aisialdi aktiboa: jarduera fisikoa eta Internet

Aisialdi aktiboaren barruko jarduera nagusiak paseoak, mendi-irteerak eta kirola praktikatzeari dira. Eskuarki kanpoan egiten dira, eta maiz lagunartean gauzatzen.

Emakumeen eta gizonen arteko alde handiena kirola praktikatzeko partaidetza da nagusiki, nahiz eta parte hartzeko tasa handitzen ari den: 1998 eta 2018 artean, % 8,3 izatetik % 12,9 izatera igaro zen emakumeen kasuan, eta % 13,7tik % 21,9ra gizonen kasuan. Horrez gain, parte-hartzaile bakoitzak aisialdi aktiboan batez beste baliatutako denboran 20 minutu inguruko aldea zenbatu da gizonen eta emakumeen artean, beti gizonen alde, asteko egun guztietan.

Ordenagailua eta Internet baliatzea aisialdi aktiboarekin lotu da; maiz etxebizitzan garatzen da eta haren praktika nabarmen handitu da gizon-emakumeen artean –dela partaidetza-tasari dagokionez, dela parte-hartzaile bakoitzak batez beste eskaintutako denborari dagokionez–. Adierazleek apur bat handiagoak izaten jarraitzen dute gizonen artean, eta erabilerak bereizi ahal dira: emakumeek apur bat gehiago erabiltzen dituzte sare sozialak eta WhatsApp, eta gizonek, berriz, gehiago baliatzen dituzte komunikabideak eta fitxategien deskargak.

Aisialdi aktiboko jardueretan parte-hartzaileko batez besteko denbora, lan-jarduerarekin duen harremanaren eta sexuaren arabera (oo:mm). 2018



Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen inkesta

[Erreferentziako taula](#)

Oharra: Laginak maiztasun apala erakusten du; hori dela eta, esangura txikiagoa du etxeko lanetara eta zainketetara dedikatutako gizonen kategorian.

3. Gizarte-bizitza eta kapital soziala

3.1. Gizarte-bizitzaren jarduerak


Gizarte-bizitzaren jarduerarik ohikoenak hauek dira: bazkaltzera, afaltzera edo kopak hartzera irtetea –etxebizitzatik kanpo gertatzen dira–, eta etxetik kanpora jendearekin solasean aritzea. Teknologia berriek aldaketak eragiten dituzte gizarte-interakzioetan, dela komunikazio pertsonalaren maiztasunean, dela sare sozialen bidez eraikitako harreman pertsonaletan.

Praktika erlijiosoak, boluntariotza-jarduerak eta beste etxe batzuetan emandako laguntza ez-formalak gizon-emakumeen **kapital sozialarekin** oso lotutako jarduerak dira.

Nahiz eta denbora-aurrekontuen inkestak ez duen uzten herritarren boluntario-lanaren bolumena zehatz-mehatz neurtzen, garrantzitsua da informazioaren analisi kualitatiboa (izan ere, informazioa biltzeko sistemak asteko egun zehatz bakarra esleitzen dio pertsona bakoitzari denboraren erabilerari buruz, eta jarduera asoziatibo bat ez da nahitaez eguneroko praktika).

Gizon-emakumeek batez beste boluntariotza-jardueretan ematen duten denboraren arteko aldea ez da erakunde motan dagoen aldea bezain esanguratsua, ezta gizon-emakumeek parte hartzeko edo lankidetzan jarduteko duten moduaren arteko aldea bezain esanguratsua ere, **Bizi-baldintzen gaineko inkestan** jasotzen denaren arabera. Halaber, **Kapital sozialaren gaineko inkestak** ere zabaltzen du informazio hori.

Gizarte-bizitzaren jardueretan parte-hartzaileko batez besteko denbora, lan-jarduerarekin duen harremanaren eta sexuaren arabera (oo:mm). 2018



Iturria: Eustat. Datu-bankua. Denbora-aurrekontuen inkesta

[Erreferentziako taula](#)

Oharra: Laginak maiztasun apala erakusten du; hori dela eta, esangura txikiagoa du etxeko lanetara eta zainketetara dedikatutako gizonen kategorian.

3.2. Emakumeen kapital soziala


Emakumeen eta gizonen kapital soziala gizarte-bazterkeriarekin eta arrakasta eta gizarteratzearekin dago lotuta. Bizitza asoziatiboak ongizate indibidualean ez ezik erkidegoan bertan ere eragiten du. Adiskidetasun- edo familia-harremanak lirateke kapital sozialean instituzionalizazio-maila txikia dutenak.

Hainbat dimentsiok –hala nola gizarte-partaidetzak, sare sozialek eta babes sozialak– pertsonaren ezaugarriak neurtzen dituzte; beste batzuk, berriz, erkidegoaren atributuekin daude lotuta –elkarrekikotasuna eta konfiantza, kasu–.

Emakumeen sareak gizonezkoen kapital sozialeko esferez bestelakoetan ibili ohi dira. Emakumeen kapital soziala gehiago dago erlazionatuta loturak sortzearekin, zubiak sortzearekin baino; hau da, **taldea zerbitzatzen jarduten dute** (loturak sortuz), eta ez hainbeste **botere politiko eta ekonomikoko munduarekin kontaktuak egiten** (zubiak eraikitzen), berriki egindako azterlanek jasotzen dutenez.

Kapital sozialaren adierazleen batez besteko balioak, sexuaren arabera. 2017

2. grafikoa: kapital sozialaren adierazle hautatu batzuen batez besteko balioak. 2017
Gizonezkoak (urdina) - Emakumezkoak (gorria)



Iturria: EUSTAT. Kapital sozialari buruzko inkesta

Iturria: Eustat. Kapital sozialaren gaineko inkesta.
[2018ko prentsa-oharra](#)

Ahalduntzea

1.- Boterea eta generoa.Genero-berdintasunaren indizea

- 1.1.Boterearen dimentsioa
- 1.2.Botere ekonomikoa
- 1.3.Botere soziala

2.- Botere politikoa

- 2.1. Hauteskundeetako emaitzak
- 2.2. Udal-hauteskundeak
- 2.3. Aurreko udal-hauteskundeak

3.- Emakumeen aurkako indarkeria

- 3.1. Indarkeria mota
- 3.2 Eragilea eta kaltegarritasuna
- 3.3. Biktimak eta biktimizazioak

1. Boterea eta generoa


1.1. Boterearen dimentsioa

Genero-berdintasunaren indizeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa (52,9) goraxeago dago Europako batezbestekoa baino (48,5) boterearen dimentsioan, nahiz eta Espainiaren (57,0) azpitik ageri den 2015eko edizioan.

Botere politikoaren azpidimentsioan –gobernuko ordezkariak, parlamentuko ordezkariak eta lurralde-batzarretako ordezkariak– Euskal Autonomia Erkidegoa (80,4) Europar Batasunaren (77,1) eta Espainiaren (72,3) gainetik dago; ez da gauza bera gertatzen agente ekonomikoaren azpidimentsioarekin, apalagoak baitira Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-puntuazioak (36,3) EBko batezbestekoa (39,5) eta Espainiako (43,5).

Botere sozialaren eremuan Euskal Autonomia Erkidegoaren zifra (50,7) Europakoaren (55,0) eta Espainiakoaren (58,9) azpian dago.

Genero-berdintasunaren indizea eta boterearen azpidimentsioak. 2015



Oharra: puntuazioak 1etik (erabateko desberdintasuna) 100era (erabateko berdintasuna) doaz
 Iturria: Eustat. Genero-berdintasunaren indizea.

[Erreferentziako taula](#)

1.2. Botere ekonomikoa


Genero-berdintasunaren indizea 36,3 da botere ekonomikoaren dimentsioan, Europar Batasuneko kopuruaren (48,5), Espainiakoaren (57,0) eta Frantziakoaren (70,2) azpitik, **genero-berdintasunaren indizearen** 2015eko edizioak erakusten duenez.

Banku publikoaren edo erdipublikoaren zuzendaritzako genero-tarteak okerrera egin du, eta, aldiz, hobetu egin da enpresen zuzendaritzan, **genero-berdintasunaren indizeak** jasotako kopuruen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko lau **enpresa-erakunde**en presidentetza gizonek osatzen dute erabat. Oso apala da emakumezkoek enpresetako zuzendaritza-erakundeetan duten presentzia, guztizkoaren % 22,5 baino ez.

Halaber, antzekoa da emakumeen partaidetza **IBEX 35en** kotizatzen duten **Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetako** erabaki-esparruetan. Gizonezkoak dira hiru erakundeetako buru, eta, administrazio-kontseiluan eta/edo zuzendaritza nagusian, emakumeen ehuneko pisua kasu bakarrean dago % 30en gainetik.

Genero-arrakala EAEn genero-berdintasunaren indizearen osagaien arabera. Botere-azpidimentsioa. Botere ekonomikoa.



Iturria: Eustat. Genero-berdintasunaren indizea.

[Erreferentziako taula](#)

1.3. Botere soziala


Genero-berdintasunaren indizea 50,7 da botere sozialaren dimentsioan, Europar Batasuneko kopuruaren (55,0), Espainiakoaren (58,9) eta Frantziakoaren (58,4) azpitik, **genero-berdintasunaren indizearen** 2015eko edizioak erakusten duenez.

Komunikabide publikoen eremuan –horixe da botere sozialaren azpidimentsioaren alderdietako bat–, Euskal Autonomia Erkidegoak (67,0) gainditu egiten du Europako batezbestekoa (61,8), Frantziakoa (65,2) eta Espainiakoa (64,6).

Botere sozialeko azpidimentsioan, genero-tartea ageri da kirol-federazioetan (0,33) eta I+Gko finantzaketa publikoan (0,51).

I+G arloaren finantzaketa publikoari buruzko adierazle berriak (2015erako sartua) aurretik hain agerian ez dagoen desberdintasun baten hausnarketa du ardatz, kirol-federazioen esparruan ez bezala, non luzaroan ezagututako desberdintasun bat gainditzeko lan egiten baita, gizarte-eskari zabal bati erantzunez.

Genero-arrakala EAEn genero-berdintasunaren indizearen osagaien arabera. Botere-azpidimentsioa. Botere soziala



Iturria: Eustat. Genero-berdintasunaren indizea.

[Erreferentziako taula](#)

[Prentsa-oharra](#)

2. Botere politikoa


2.1. Hauteskundeen emaitzak

Emakumeek toki esparruan dute gaur egun ordezkaritza politiko apalena; alkatetzen % 30 emakumezkoek osatuak dira, eta % 70, berriz, gizonezkoek, 2019ko hauteskundeen emaitzek erakusten dutenez.

Lurralde historikoetako Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean, hautetsien ordezkaritza orekatua da, eta ez du gainditzen arrazoizkotzat jotzen den 40/60 ratioa. Halaber, emakumeen alderantz egiten du apur bat.

Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko ganberetan duen ordezkartzari dagokionez, 2019ko hauteskundeak aintzat hartuta, Kongresurako hautatutako 18 pertsonetatik 7 dira emakumeak, eta Senaturako 12 hautetsietatik ere 7 dira emakumeak 2018an.

Hauteskundeen emaitzak, Euskal Autonomia Erkidegoan berriki izandako hautetsien sexuaren arabera. %.




Iturria: Hauteskundeetako emaitzen fitxategia. Segurtasun Saila

[Erreferentziako webgunea](#)

2.2. Udal-hauteskundeak

Nabarmena da genero berdintasunaren alorreko legeriaren eragina, batez ere hauteskunde-zerrendak osatzeko garaian. Zinegotzien artean emakume gehiago ageri dira, udal-hauteskundeetako kopuruek adierazten dutenez.

Hautagai-zerrendak eta hauteskundeetako emaitzak sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan berriki egindako udal-hauteskundeetan. %.




Iturria: Hauteskundeetako emaitzen fitxategia. Segurtasun Saila.
[Erreferentziako webgunea](#)

2.3. Aurreko udal-hauteskundeak

Udalei dagokienez, oraindik ere jarraitu egiten du alkatetzetako desorekak gizonen eta emakumeen artean, eta % 30 eta % 70 artean zenbatesten da 2019rako.

Aurreko urteetako bozetan desoreka handiagoak zeudela adierazten dute kopuruek, eta zenbatutako aurrerapenak itxaropentsu dirudite alor horretan.

Hauteskundeetako emaitzen bilakaera (alkatetzak), Euskal Autonomia Erkidegoko udal-hauteskundeetan berriki izandako hautetsien sexuaren arabera. %.



Iturria: Hauteskundeetako emaitzen fitxategia. Segurtasun Saila.

[Erreferentziako webgunea](#)

3. Emakumeen kontrako indarkeria.


3.1. Indarkeria mota

Emakumeen kontrako indarkeria da genero-desberdintasunaren adierazpiderik gordinena.

Euskal Autonomia Erkidegoak informazio estatistiko ofiziala du harekin lotutako bi alderdi aztertzeko: prebalentzia eta larritasuna. 2018an, emakumeen kontrako indarkeriaren 5.315 kasu (edo biktimizazio) kontabilizatu dira orotara.

2018an, 4.244 emakume izan dira indarkeriaren biktima Euskal Autonomia Erkidegoan, eta gehien-gehienak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren biktima izan dira. Emakume batek genero-indarkeriako gertakari bat baino gehiago paira ditzake urte berean.

Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimizazioaren (kasu kopuruaren) bilakaera, indarkeria motaren arabera, 2009-2018.



Iturria: Segurtasun Saila. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika.
[Erreferentziako taula](#)

3.2. Eragilea eta kaltegarritasuna

2018an, emakumeen kontrako lau indarkeria-kasutatik hiru biktimaren bikotekideek edo bikotekide ohiek gauzatuak dira (% 75).


Hildako hamar emakumetatik zortzi bikotekide edo bikotekide ohiaren eskuetan izan dira, eta bi gertuko senitarteko baten eskutik; larri zauritutako 21 emakumetatik, 18 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik izan dira, eta hiru gertuko senitarteko baten eskuetatik, esandako urte horretan.

Bikote-harremana eten ostean zenbatu dira emakumeen kontrako indarkeriaren kasuen ia erdiak: 1.591 kasu bikotekide ohiaren kontra. Gainera, 800 aldiz baino gehiagoz urratu da bikotearengandik edo bikotekide ohiarengandik urruntzeko agindua.

Familia barruko bestelako indarkeria kasu batzuetan (% 18), ama, alaba adingabea edo familiako beste emakume bat izan dira biktima. Amaren kontra, ohiko tratatu txarren 160 kasu izan dira, eta 120 lesioekin; 35 kasutan baino gehiagotan urratu da urruntze-agindua. Alaba adingabeen kontra, ohiko tratatu txarren 95 kasu erregistratu dira, 40 lesio-kasu eta sexu-indarkeriarekin lotuak, berriz, 18, betiere 2018ko datuen arabera.

Azkenik, 388 kasu erregistratu ziren (gainerako % 7) emakumeen sexu-askatasunaren kontrako delituekin, biktimarekin harremanik ez duten egileek edo familia-esparrutik kanpokoek eskutik; halaber, emakumeen kontrako sexu-abusuen kasuak 207 izan dira, eta beste 64 sexu-eraso sarketarekin, beste 26 sexu-abusu sarketarekin, gehi 43 sexu-eraso kasu, beste hainbat delituen artean.

Emakumeen kontrako biktimizazioak (kasu kopurua) Euskal Autonomia Erkidegoan, biktimak erasotzailearekin duen harremanaren arabera 2017-2018



Iturria: Segurtasun Saila. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika.

[Erreferentziako taula](#)


1.3. Biktimak eta biktimizazioak

Kasuen kopurua (biktimizazioak) handiagoa da biktima kopurua baino, ikusten denez; beraz biktimarioek behin eta berriz jarduten dute emakumearen kontra, hortaz emakumeek indarkeria behin eta berriro pairatzen dute.

Biktimizazio bakoitza gertakari isolatu gisa hartzen da, eta ez egoera jarrai baten azkeneko gertakaria. Biktimizazioak ez dira delitu puntualak, ez dira bikote banantzearen edo hausturaren ondorio naturala. Emakumeen kontrako indarkeria estrukturala da eta indarkeri horri 'gizonezkoen nagusitasuna edo dominazioa' deritzo.

Familia eta bikote-ingurunean ere dominazio horren estereotipo kulturalak oso errotuta izan daitezke. Emakunderen kanpainan "Berdintasuna ikasi egiten da, irakatsi berdintasuna" leloak balio-aldaketa horrieragin nahi dio. Erakunde publikoek kontuan hartu behar izango dute indarkeria-egoera horiek arriskutsuak direla emakumeentzat, edota beste pertsona batzuentzat, eta kaltea (fisikoa, psikikoa edo emozionala) saihesteko neurri egokiak hartu behar direla.

Emakumeen kontrako biktimizazioak (kasu kopurua) eta biktimak (emakumeak) Euskal Autonomia Erkidegoan, indarkeria motaren arabera, 2018.



Iturria: Segurtasun Saila. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika.
[Erreferentziako taula](#)